



INDUSTRIA KIMIKAREN INGENIARITZAKO GRADURA EKOKITZEKO MODULUA

JUSTIFIKAZIOA:

Otsailaren 9ko CIN/351/2009 Ministro Aginduak –2009ko otsailaren 20ko BOE– jasotzen duenez, Industria Kimikaren Ingeniaritzako Graduari esleitutako lanbiderako gaitasunak industria ingeniari teknikoaren tituluak (Especialitatea: Industria Kimika) dituen berberak dira, aurrerago Espainian lanbideak arautzeko sortuko diren izaera orokorreko erreformen kalteetatik kanpo.

Haren egituraketa eta edukiak direla eta, Industria Kimikaren Ingeniaritzako Graduak industria ingeniari teknikoaren tituluari (Especialitatea: Industria Kimika) balio erantsia ematen dioten gaitasunak biltzen ditu.

Industria Kimika espezialitatea egina duten egungo industria ingeniari teknikoek baliteke Industria Kimikaren Ingeniaritzako Graduaren gaitasunak bereganatuta izatea, baina hori hala den ala ez curriculum akademiko eta profesionalek erabakiko zuten.

Hori dela eta, egoki jotzen da Egokitze Ikastaroak eskaintzea lehengo titulazioaren (Industria Ingeniaritza Teknikoa, espezialitatea: Industria Kimika) eta gradu berriaren (Industria Kimikaren Ingeniaritza) arteko tarte horri begira.

SARBIDEA:

- Plaza kopurua: 10
- Sartzea eskatzeko bete beharreko baldintzak: Industria Kimika espezialitateko Industria Ingeniaritza Teknikoko tituludunak izatea.
- Hautaketarako irizpideak: Espediente akademikoa, nota handienetarik nota txikiagoetara. Lehenetsuna emango zaie proposatutako egokitze ikastaroaren diseinuaren arabera aldez aurretiko prestakuntza eskuratua duten ikasleei. Irizpide horiek kontuan harturik, eskaerak honela ordenatuko dira:
 - Lehenengo eta behin, UPV/EHUko Industria Kimika espezialitateko Industria Ingeniaritza Teknikoko tituludunak. Eskaerak espediente akademikoko batez besteko notaren arabera ordenatuko dira.
 - Bigarrenik, beste unibertsitate batzuetako Industria Kimika espezialitateko Industria Ingeniaritza Teknikoko tituludunak. Eskaerak ordenatzeko irizpidea espediente akademikoa izango da.
- Iraute arauak: Titulazio honetarako UPV/EHUK ezarritako arau ofizialak izango dira.



PLANGINTZA:

- Ikastaroaren kreditu kopurua: 96 ECTS
- Modalitatea: *Graduko ohiko irakats eskaintzan integratutako modulua*
- Metodologia: Graduko irakasgaietarako zehaztutakoa
- Ebaluazioa: Graduko irakasgaietarako zehaztutakoa

IRAKASGAIAK:

Egokitze Ikastaroa izeneko modulu bat gehitu da, 96 kreditu ECTS ditu, era honetara banatuak:

1) 84 ECTS M01 moduluko irakasgaienak: Oinarrizko irakasgaiak, M02: Industria adarreko irakasgai komunak, M03: espezialitateko irakasgaiak.

- Matematika (Kalkulua eta Aljebra): 18 ECTS
- Materialen Zientzia: 6 ECTS
- Banakako Eragiketak: 12 ECTS
- Mekanika Aplikatua: 9 ECTS
- Teknologia Elektroaren Oinarriak: 9 ECTS
- Industria Elektronika: 6 ECTS
- Ekoizpen eta Fabrikazio Sistemak: 6 ECTS
- Kudeaketa Osorako Sistemak: 6 ECTS
- Ingurumen Teknologia: 6 ECTS
- Ekoizpenaren Antolakuntza: 6 ECTS

2) Gradu Amaierako Lana: 12 ECTS

Irakasgai horiek bermatu egingo dute aurreko ikasketa planetan lortzen ez ziren gaitasunak –orain, CIN/351/2009az geroztik, nahitaezkoak dira– eskuratuko direla.

KREDITUEN AITORPENA:

. Egokitze moduluko edozein irakasgairen kredituak aitortzeko eskatu ahalko da, Gradu Amaierako Lanarena izan ezik.

. Lan esperientzia balioetsiko da, baldin eta interesdunak jardun profesionalean gutxienez 5 urtez aritu eta eskatzen den profil profesionala gogoan baliozkotzea eskatzen duen irakasgai bakoitzaren behar adinako ezagutza egiaztatzen badu. Eta, hala badagokio, elkargoaren edo lanean aritutako enpresaren ziurtagiria aurkeztu beharko da. Hauek dira aurkeztu beharreko agiriak: lan kontratua eta lan bizitza, eta egindako lanaren memoria.

. Baliozkotu egin ahalko dira nazioko eta nazioarteko master, graduondoko ikastaro, bigarren ziklo ofizial eta bestelako titulazioei dagozkien kredituak, baldin eta egindako irakasgaietako edukiak irakasgaiak baliozkotzeko eskatzen den irakasgaien programarako garrantzitsuak badira.

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



Escuela Universitaria de Ingeniería Vitoria-Gasteiz Ingeniaritzako Unibertsitate Eskola Vitoria-Gasteiz

Edozein kasutan, kreditu horiek Akademia Antolakuntzako Batzordeko buruak baliozkotuko ditu.